



Argitaratze-data: 2020/10/20

# ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA 2020

## Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

### Sartzeko eta iristeko prozedurak

## HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA ZIURTATZEKO DOKUMENTAZIOA

### AURKEZTEA

**Entregatzeko epea: 2020ko urriaren 21etik 30era arte, biak barne.**

#### **Nortzuek entregatu behar dute (bi baldintzak eman behar dia):**

- onartuak eta baztertuak dauden izangaiek, baldin eta gora jotzeko errekurtsua jarri badute eta ebatzi gabe badago.

eta

- Hezkuntza Sailean ez dagoen irakasleen 2. Hizkuntza-eskakizuna edo salbuespena egiaztatzeko titulua/ziurtagiria.

Zerrenda bat argitaratu da; horretan zerrendatzen diren izangaiek AURKEZTU BEHAR DUTE irakasleen 2. HE ziurtatzen duen TITULAZIO / ZIURTAGIRI edo SALBUESPENA, Hezkuntza Sailean ez dagoelako. Zerrenda kontsultatu daiteke <http://www.irakasle.eus> –en («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz): «2020 EPE. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa. Sartzeko eta iristeko prozedurak» - «Berriak: Hizkuntza-eskakizuna ziurtatzea».

#### **Nola egiaztatu daiteke irakaslearen 2. HE?**

- a) Euskararen Gaitasun Agiria (EGA).
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko edo beste autonomia-erkidegoren bateko hizkuntza-eskola ofizialetako euskararen gaitasun-ziurtagiria edo 5. mailaren ziurtagiria (ikasketa-plan zaharra, urtarrilaren 24ko 47/1992 Errege Dekretuaren arabera).
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko edo beste autonomia-erkidegoren bateko hizkuntza-eskola ofizialetako gaitasun-mailaren (C1) ziurtagiria (otsailaren 24ko 46/2009 Dekretuaren arabera).
- d) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) emandako 3. hizkuntza-eskakizuna.
- e) HABEko 3. mailako eta C1 mailako ziurtagiria (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak).
- f) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko 3. hizkuntza-eskakizuna.
- g) Ertzaintzako 2. hizkuntza-eskakizuna.



h) Euskaltzaindiako D ziurtagiria.

i) Salbuespena aitortzea, unibertsitate-titulua edukitzeagatik, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren 2. eta 5. artikuluetan zehaztutako betekizunak dituen (apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta -ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko dena).

j) Euskararen jakite-mailaren beste titulu edo ziurtagiri batzuk, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 eta C2 mailekin parekatutakoak (297/2010 Dekretua, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena).

#### **Aurkeztu behar den dokumentazioa:**

- hizkuntza-titulazioa edo ziurtagiria.
- dagokion unibertsitateak emandako ziurtagiria, ziurtatzeko salbuetsita dagoela adierazten duena.

#### **Entregatzeko modua:**

Salbuespenezko egoera kontuan hartuta, eta osasun-segurtasuna bermatzeko ezohiko neurriak hartu behar direnez, pertsonak elkartzea edo haien arteko hurbiltasuna eragiten duten jarduerak saihestuz, dokumentazioa honako Interneteko helbide honetan aurkeztuko da: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-langileak/> – «2020ko EPE. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa – Aurretiko probak - Irakasleen hizkuntza-eskakizuna ziurtatzea. Atal horretan **“2. Irakaskuntzako hizkuntza-eskakizunaren titulu edo ziurtagiria entregatzea”** formularioa bete beharko da, dagokion dokumentua atxikitu eta “Bidali” atalean sakatu. Inprima daitekeen egiaztagiria lortuko da.

edo,

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariari idatzi bat aurkeztu, Donostia kalea 1 (Lakua), Vitoria-Gasteiz (posta-kodea: 01010), Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean oro har ezarritako bideak erabiliz.